



BEKA BERRIKUNTZARAKO OHARRAK

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak emandako EA Erentzat interesgarriak diren gaian atzerrian espezializatorako ikasketak egiteko beken berrikuntzari begira, honako prozedura honi jarraitu behar zaio:

Deialdi honen beken berrikuntzarako eskaerak entregatzeko azkenengo eguna **2005eko uztailaren 14a** izango da, Zientzi Politikarako Zuzendaritzara berrikuntzarako eskabide inprimaki normalizatua bidaliz, ondorengo dokumentazioarekin batera:

a) 2004ko urritik 2005eko maiatzaren bitartean egindako ikasketei eta ikerketei buruzko txostena (gehienera bost orrialde), espedientea, garai horretan lortutako ikasketa kalifikazioekin, erantsiaz. Bekadunak eta aukeratutako programaren arduradunak edo bekadunaren tutoreak/ek sinatua bialdu behar da.

b) Memoria bat (gehienera hiru orrialde). Memoria honetan etorriko da, 2005/2006 ikasturteari begira, beka berritzekotan, egingo den ikasketa programaren deskribapen zehatz bat, ikastaroak, gaiak eta noiz bukatuko den zehaztuz. Ikastegiaren programari buruzko agiri ofizialekin (argitaratutako liburuxkak, inprimakiak, etab.) batera aurkeztu beharko da.

c) Eskatzaileak egindako matrikula gastuen estimazioa eta estimazio hori bermatzen duen dokumentazio ofiziala. Estimazio honetan bakarrik kontsideratuko dira tasa akademikoak. Tasa akademikoak bat baino gehiago badira, estimazioan bereiztuta eta deskribapen labur batekin aurkeztuko dira.

